



**BEIZAMAKO UDALA**  
(GIPUZKOA)

**2009-04-29ko OHIKO UDALBATZA**

Beizaman, bi mila eta bederatzigarren urteko apirilaren hogeita bederatzian, arratsaldeko 19:00etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ezohiko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea – Ramon Gerrikagoitia Bengoetxea jauna– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Luis Javier Oregi Iñurrieta jauna, Begoña Garmendia Vazquez andrea eta Igone Arruti Olazabal andrea.

Ez da etorri eta ezin etorria adierazi du: Itziar Arkonada Lizarraga andrea.

Ez da etorri eta ez du adierazi ezin etorria: Inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgia jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratua baita.

**LEHENENGO GAIA**  
**AURREKO BILERAKO AKTA ONARTZEA.**

2009ko martxoaren 25eko saioaren akten zirriborroa aztertzeko denbora gehiago beharra irudiz, aho batez erabaki du udalbatzak hauen onarpena hurrengo batzarrerako uztea.

**BIGARRENGO GAIA**  
**ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

Alkateak honako dekretuen berri ematen dio udalbatzari:

- 2009-03-27ko 12/2009 Dekretua: J.A.G.-ri, egiten ari den lanak gelditzeko agintzea.
- 2009-03-30eko 13/2009 Dekretua: 15.147.114-G, duen elbarritasuna dela eta, trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzetik salbustea.
- 2009-04-20ko 15/2009 Dekretua: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak langabezia dauden langileak kontratatzeke egin duen dirulaguntza deialdirako ludoteka zerbitzua izeneko proiektua aurkeztea.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez adierazi du jakinaren gainean dagoela.

**HIRUGARRENGO GAIA**  
**R-21 GUNeko ARGINDAR POSTEA LURPERATZEKO EGIN BEHARREKO**  
**DESJABETZAPEN ESPEDIENTEAREN IREKIERA.**

Beizaman helbideratua dagoen Alejandro Monasterio Iruretagoienak, 34.093.547-A



BEIZAMAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

N.A. duenak, eskaera egin zion Udal honi. Bertan, R-21 gunean dagoen argindar posteak suposatzen duen arriskua kontuan izanik, berau kentzeko eskatzen zuen.

Eskaera aztertu ondoren, Udal honek, 2009ko otsailaren 25ean ospatutako Osoko Bilkuran, besteen artean erabaki zuten, Udal honek gai honi buruz aurretik hartutako erabakia berrestea eta R-21 guneko proiektuaren aldaketa egitea onartzea elektraingurutzeko postea lurperatzeko.

Ekimen honekin jarraituz, Udalbatzak, bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen du:

**Lehena.-** R-21 guneko argindar postea lurperatzeko egin beharreko desjabetzapen espedientearen irekiera.

**Bigarrena.-** Udal hau aholkatzen duen arkitektoari, Xabier Rezabal jaunari, eragindako eskubide eta betebeharren zerrenda eta balorazioa egin dezan eskatzea. Kontuan hartu beharra izango du, aldi berean, ezarri beharreko zortasuna.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

**LAUGARRENGO GAIA  
GALDERA ETA ESKAERAK.**

Gaiaren premiatasuna ikusirik, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondoko gaia bertan eztabaidatzea erabakitzen dute:

**BEIZAMAKO HERRIKO OSTATUKO ESLEIPENA HUTSA DEKLARATZEA**

Beizamako Udalbatzak 2009ko urtarrilaren 19an egindako osoko bilkuran, Beizamako "ostatu zaharra" taberna-jatetxearen ustiapen eskubidea esleitzeko espedienteari hasiera eman zion eta jardunbide irekian agindu behar zuten baldintza ekonomiko administratibo partikularren pleguak onartu zituen.

Dagokion iragarkia, 2009ko martxoaren 4an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen proposamenak aurkezteko epea irekiz. Ezarritako epea igaro ondoren, berriz, ez da inongo proposamenik azaldu.

Aurreko guztia ikusirik, Udalbatzak, bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen du:

**Lehena.-** Beizamako "ostatu zaharra" taberna-jatetxearen ustiapen eskubidea



BEIZAMA KO UDALA  
(GIPUZKOA)

esleitzeko jardunbidea hutsik deklaratzeko

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

Gaiaren premiatasuna ikusirik, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondoko gaia bertan eztabaidatzea erabakitzen dute:

**ONARTZEA, BADAGOKIO, SAN LORENTZO KOOPERATIBAREKIN  
HITZARMENA SINATZEA**

Beizamako Kanpo Kooperatiba, hirurogeigarren hamarkada amaiera aldera sortu zen Beizamako herritarrei zerbitzu bat emateko asmoarekin. Kooperatiba moduan sortu zen eta herriko baserritarrak izan dira bere bazkide bakarrak. Zerbitzua pentsu eta oinarritzko elikagai eta elementuak eskaintzera zuzendua egon da.

Urteetan zehar herriak izan duen jende beherakada dela eta, eta jendearen erosketa ohitura aldaketak direla eta, Kooperatibaren pisua gutxitzen joan izan da eta duela bost sei urte inguru, zerbitzua emateari utzi zion.

Kooperatibak urte guzti hauetan, ondasun edo diru kopuru bat batu du eta orain, bere desgitearekin, Kooperatibaren den diruari zer nolako erabilera eman behar zaion erabaki behar izan da.

Beizamako Kanpo Kooperatibako ordezkariak, beraien sorrerako helburuekin zintzo jokatu asmoz eta Kooperatibaren ibilbide osoan Elizak izan duen jarrera ezin hobea eskertu nahiez, Beizamako Kanpo Kooperatiba desgitearekin egin behar den diru likidazioaren erabilera honako ekimenera zuzentzea erabaki zuten: San Lorentzoko ermita konpondu eta egokitzea.

Aurreko guztia ikusirik, Udalbatzak, bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen du:

**Lehena.-** Beizamako San Lorentzo Kooperatibarekin dagokion hitzarmena sinatzea, Kooperatibaren desgite eta likidazio bezala gelditutako dirua San Lorentzo ermita berriztatze bideratzeko.

**Bigarrena.-** Aurreko guztia jasoko duen hitzarmena sinatzeko eskuordetzea.

Erabaki hau izapidezko egintza soil besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo



BEIZAMA KO UDALA  
(GIPUZKOA)

errekurtsorik jarri.

Aztertze ko beste gairik ez dagoenez, 20:30etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.